

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko maiatzaren 11

Egunkaria

Gehigarri honetan



**Bera** • Mugaz Gain haur eta gazteen antzerki jaialdiaren zazpigarren aldia hasi zen atzo

**Koldo Biñuales** • «Euskaldunon hizkuntza, kultura eta historia berreskuratzea eta zabaltzea da Irujo Etxearen xedea»

ling nauarroy

## Nafarren hizkuntza

San Migel elizaren onurarako Arimeriako behitegia kudeatzeko 1167. urtean Iruñeko gotzainak eta Beila kondeak egin zuten akordioa, berez, ez da garrantzi handikoa. Egiaren errateko, bost axola duela mila bat urteko behitegi baten gaineko akordioa. Baina kontua da hori idatzi zuenak testuan 'lingua navarrorum' esamoldea paratu zuela bertan. Eta horrek berebiziko garrantzi politikoa ematen dio dokumentuari, administrazioak «nafarren hizkuntza» deitu zutena alboratzen duen honetan. Mintzoa argialetxeak agiriaren 365 kopia faksimile egin ditu.

Bera ●

# Ttikienak agertokira

Mugaz Gain haur eta gazteen antzerki jaialdiaren zazpigarren aldia hasi zen atzo

**Zazpigarren urtez segidan, Lamixine BAT antzerki taldearen ekimenez, Mugaz Gain haur eta gazteen antzerki jaialdia hasi zen atzo. Gaur izanen du jarraipena jaialdiak, eta bertze bi emanaldiak hurrengo astean izanen dira, ortzegun eta ortziralez. Denetara hamaika antzezlan taularatuko dira, eta bertze hainbertze ikastetxek parte hartuko du.**



Zazpigarren urtez, Mugaz Gain haur eta gazteen antzerki jaialdia egiten ari dira Beran.

● EGUNKARIA

**E**KIMENAREN HELBURUA eskolan egiten den antzerkia taularatzea da. Urte osoan egindako lana euren adineko publikoaren aitzinean paratzeko xedearekin sortu zen jaialdia, eta bi asmo horiei tinko eusten die. Aurten, joan den urteko saioaren ildotik,

jende guztiari irekitako emanaldiak ere izanen dira.

Arantzako Herri Eskolako ikasleek eman zioten hasiera atzo jaialdiari, eta eurekin, Loiolako La Salle ikastetxeko eta Errenteriako Koldo Mitxelena Institutuko ikasleak aritu ziren. Atzo eta gaurko emanaldiak

Heldu den asteko emanaldiek, berriz, bertzelako antzezlanak erakutsiko dituzte. Aktoreen eta publikoaren adina ahalik eta berdintsuena izaten ahalegintzen dira antolatzaileak, eta guztietan ere publiko kopurua mugatzen dute, arretaz ikus

DBHko eta Batxilergoetako ikasleei zuzendua daude, eta antzezleak ere maila horietakoak dira.

Gaur, ostera, bertze hiru talde igoko dira Berako Kultur Etxeko ohol-tzara: Hondarribiko Ama Guadalupekoa ikastetxekoek *Hutsera salto* antzezlan eskainiko dute, Hondarribiko Talaia Institutukoek *Ez dago lekurik*, eta Iturrama institutu-koek *Farola bat egongelan*.

dezaten. «Horrelako ekimenak beharrezkoak dira, antzerkirako hezi daitezen nahi badugu, ttikitatik ohitu behar ditugu antzerkia ikusten eta egiten», diosku Maria Agirrek, Lamixine BATEko lehen-dakariak.

Lesakako Tantirumairu eta Irain eskoletako kideekin batera, Berako Labiaga ikastolako taldeak eta Ricardo Baroja eta Jesusen Bihotza ikastetxeek elkarrekin egin duten antzezlan ikusi ahal izanen da goizean. Arratsaldean emanaldi guztiak errepikatuko dira, guraso, lagun, eta, oro har, publiko guztiari zabalik. Arratsaldeko emanaldi horietan, arestian aipaturiko taldeez gain, eta bi egunetan, Berako Antzeko parezido lantegiko ikasleek ere parte hartuko dute. Lantegi hau eskolaz kanpokoa da, eta DBHko ikasleek parte hartzen dute. Berako antzezlan guztiak *Antzerkia eta Eskola* egitasmoaren emaitza dira. Programa honen bidez, antzerkia eskola orduetan lantzen da Berako ikastetxe guztietan.

→ Jon Abril

Lesaka

Bertso eskolen topaketa asteburuan

BIHAR ETA ETZI ELKARTUKO dira Nafarroako bertso eskola guztietako kideak, Lesakan. Bi egunetan elkar ezagutzeaz gain hainbat ekitaldi egingen dituzte. Horietan garrantzitsuena Nafarroako Eskolarteko Txapelketa da.

Ikasturtea amaitzetik gertu dagoela eta, Nafarroako bertso eskoletako kideak Lesakan bilduko dira asteburu honetan, elkar ezagutu eta bertsoaritzaren inguruan aritzeko. Lesakako Matxinbeltzanean elkartuko dira bi egun horietan, eta bide batez, Nafarroako Eskolarteko Txapelketa egingen dute. Lehen bi sailkatuek Nafarroa ordezkatuko dute datorren ekainean jokatu den Euskal Herriko Eskolarteko Bertso Txapelketan.


Orotara zortzi bertsolari ariko dira bihar, eguerdiko 12:30etik aitzinera, Lesakako Arrano Elkarteko aretoan. Etxarriko Bertso Eskolatik bi kide ariko dira kantuan, Eneko Lazkoz eta Joseba Beltza; lau kidek parte hartuko dute Iruñerriko ikastetxe eta bertso eskoletatik, Iñigo Otxoak, Mikel Azpirozek, Jon Basagurenak eta Oier Lakuntzak, bertze batek Bortzirietatik, Beñat Tabernak, eta zortzigarrena Jon Elizetxe baztandarra izanen da. Guztiak ere handien mailan lehiatuko dira, ttikiena eskualdez eskualde jokatzeko ari baita asteotan.

Horrezaz gain, asteburuan aisialdiko ekitaldiak, ariketak eta bertze gisako hainbat jarduera antolatu dituzte.

→ Jon Abril

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



**L**ozorroan luzaz egon ondoren, esnatu ziren, pixkanaka-pixkanaka eginez, herritar oro. Esnatzea, hala ere, ez zen batere eroso izan gehienentzat. Izan ere, ke bolada ezinago pozointsu bat zetorren atmosferaren goialdetik, mehatxuka. Sobera dago esatea, itobeharren ondorioz, izua ez ezik herioa ere zabaldu zela hiri osoan zehar. Kaltetuenak, fisikaren legeei jarraikiz, goiko etxebizitakoak izan ziren, hala-beharrez; haiexek jasan baitzituzten, bete-betean, kearen erasoak eragindako lehen itolarri kasuak.

Bidegurutze guztietako alarma-hotsak, bestalde, nonahi aditu ziren; eta, hain ziren itzelak kaletarren ikarak (keaz gainera, temperaturak gora egiten zuen etengabeki), krisi kabinete bat eratzea erabaki baitzuten hiriko agintariek; zer gerta ere, egoera berez nahiko larri hura kaotikoago bihur ez zedin.

## Hondamenditik gertu

Kabineteak, bada, jakin zuen, datuak sakon aztertu ondotik, ke guneetara bidalitako dozenaka soldadu, hiriko ausart eta gertuenak, kiskalita zeudela sarrera nagusiaren parean. Lehen neurriak -bereziki, dena bere onera etorri arte, hiria baimenik gabe abandonatzerik ez zegoela agintzen zuena- hitzartu zituen kabineteak. Jarraitu beharreko estrategia ere finkatu zuen, eta, horren ondorioz, agintari gorenak -erregina barne, noski-, segurtasun barrunbe berezietara eraman zituzten lasterrean, ezer txarrik gerta ez zekien.

Aldi berean, hiriko talde erradikalenean, errepublika ezartzearen aldekoek, abaguneaz baliaturik eta ilusioz gainezka, esan zuten eraso bortitz hura kanpotik zetorrela; eta, jarraian, greba orokorrera deitu zuten. Alferrik, baina. Herritarrek, erreginarene alde zeudela argi eta garbi utzi nahian, muzin egin baitzioten deiari. Bitar-

tean, karrika, plaza eta xokoetan pilatuz zihoazen zibilen zein armadako kideen gorpuak. Egoerak, labur beharrez, ahal zuenak ahal zuen bezala bere burua salbatzera erakarri zuen. Hiriak, benetan, Danteren infernua zirudien.

Lur azalaren gainean, belazean etzanda zeudela, zera esan zion Nereak Zigorri, haserre bizian adierazi ere: «Ken ezazu oraintxe bertan, mesedez, zigarro mutur hori zulotik, astazakil horrek; ez duzu ulertzen, ala, gu bezain bizidunak direla izaki txiki horiek?».

Zigorrek artean piztuta zegoen zigarroa zulotik ateratu zuen bezain laster, bakea egin zen inurritegian, eta, beren bizilagunek, deus txarrik gertatu izan ez balitz bezala, ohiko zereginari ekin zioten betiko moduan, normaltasun osoz.

# Elizondo • Baztango sorginen edabeak



urdairen  
mintzoa

Xabier Larraburu

## Metaostiak

Julio Zesarrengandik ihesean zihoala, Ponpeio Magno Egiptora iritsi eta bertan hil zuten egiptorrek. Hondartzako harea ukitu bezain pronto, zain zegoen eta Egiptoko Erregeentzat lan egiten zuen erromatar zenturioi ohi batek burua gorputzetik ezpataz bananduzion, zaska!, eta erromatar zaldunek eramaten zuten eraztuna ere eskutik kendu zion, eta ondotik hantxe utzi zuen bururik eta eraztunik gabeko gorputz hura, uretan murgildurik. Gauzak horrela gaua iritsi zen eta pasatu egin zen, eta biharamunean bere jarraitzaileek hantxe aurkitu zuten hilotz apurtua eta hantxe erre zuten galdutako ohorearen azken tantei eutsi nahian, esanez bezala: «Ez da gorputz soil bat; Ponpeioren gorputza da hemen erretzen duguna». Eta listo. Hau da haren heriotzari buruz esan dezakeguna. Gaur liburu zahar batean miazten ari nintzela Ponpeioren azken egunsenti horren ilustrazioa aurkitu dut. Hemen dago, grabatu zahar honetan, Egiptoko hondartza hura. Hemen dago haren jarraitzailea, belaunikoa, eskuak aurpegian, sutan dagoen gorputzaren aurrean. Atzean dena da itsasoa, eta itsasoaren gainean ontzi bat. Ponpeioren gorputza gerritik gora biluzik dago, eta buruan, horixe ba!, burua du. Liburua, jatorriz, Vatikanokoa da. Elizaren hurbilekoek idatzi eta marraztua. Vatikanokoen azpian altxor ikaragarriak bilduak daudela esan ohi da. (Nik ere horrela izatea nahi nuke, etorkizunean, Elizaren Harresia erortzean, soto horietako gauzen artean paseatzeko). Ez dakit Vatikanoko lur azpiko horietatik edo nondik atera ote duten marrazkitxoan paratu duten buru xelebre hori. Agian Pedagogiaren sototik, edo Didaktikaren ziegetatik aterako zuten. Ez dakit nola deitu Historiatik urruntzen den honi. Segur aski Metahistoria edo Metaostia deitu beharko genuke. Eta pentsatzen hasia naiz, marrazkitxoez aparte, telebistetan ikusten ditudan Teleberri eta Telediario horietako buruak ere ez ote diren Ponpeioren buruaren antzekoak izango: Buru Pedagogiko eta Didaktikoak. Historiarekin baino Metaostiekin lotura handiagoa dutenak. ●

Aurten ere kirol taldeek '12 ordu lasterka' antolatu dute biharko

**12 ordu eskuaraz** besta asteburu honetan ospatuko da. Larunbatean emanen zaie hasiera ekitaldiei, dantza jaialdiarekin. Igande eguerdian, Elizondoko Foruen plaza sorgin eta inkisidorez beteko da herri antzerkian.

**B**OSGARREN URTEZ JARRAIAN 12 ordu eskuaraz besta ospatuko dute baztandarrek. Baztango Dantzariak antolatutako besta erraldoi honek kultur talde ugari bilduko ditu bi egunetan. Kirol taldeek, bihar, goizeko zazpitan, 12 orduko lasterketa bat hasiko dute; Lekarozko ikastetxeko zelaietan izanen da, eta arratsaldeko zazpitan amaituko da. Hamabi ordu horietan nahi duen edonor joan daiteke euskararen alde laster egitera. Arratsaldeko zazpi eta erdian, Elizondoko frontoia dantzari beteko da urteroko dantza jaialdia eskaintzeko. Euskal Herri osoko dantzak agertuko dituzte adin guztietako lagunek. Aurten, bestaren gastuak ordaintzen laguntzeko, sarrera bat ordaindu beharko da.

Igande goizean, Baigorriko gaiteroek dianak joko dituzte herria esnatzeko, eta eguerdian, ospakizunik handiena hasiko da: *Agottaneko Andria* obraren antzezperra. Iaz bezala, Patxi Laborda izan da gidoiaren

egilea. eta Baztango sorginak eta inkisizioa izan ditu abiapuntutzat. Zugarramurdiko sorginak dira gure inguruan ezagunenak, eta horrek Baztanen sorgintzat hartu zituzten andreen istorioak estali ditu.

Emakume hauek gogoratu nahirik, 200 aktore amateur bilduko dira Elizondoko Foruen plazan sorginkeraren obra honi bizia emateko. Antzezlanean erabiliko diren jantziak Baztango hainbat emakumek josi dituzte, arratsalde oroz Arizkuneana kultur etxean egin dituzten bilkuretan. Zuzendari lanetan Cristobal Urrutia eta Itziar Obregozo iruritarrak, Ainhoa Viela amaiurtarra eta Jexux Bailon elizondarra izanen dira, eta ez dute lan makala izanen 200 aktoreak zuzentzeko ordua iritsiko denean.

Baztango Dantzariak *12 ordu eskuaraz* lehenengo aldiz antolatu zutenean Nafarroako Gobernuari laguntza ekonomikoa eskatu zioten, batez ere Akitania eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinatua zuen akor-



Urtero bezala, aktore ez profesionalek antzezlan bat eskainiko dute 12 ordu eskuaraz bestaren baitan. Aurten: *Agottaneko Andria*. ● MENA ARGAZKIAK

dioaz baliatzeko. Baina Nafarroako Gobernuak dena bertan behera utzi zuenean, antolatzaileek beste bide batzuk bilatu behar izan zituzten gastuak ordaintzeko. Aurten antzezlanak ikusi nahi duen orok sarrera ordaindu beharko du, eta Elizondoko plazan ezarriko diren harmailetan jarriko da publikoa. Bestalde, Baztango Dantzariak Renault Espace bat zozketatu-

ko dute igandean, hortik ere diru pixka bat ateratzeko.

Besta goxoki amaitzeko, zikiroa izanen da Merkatuko plazan; urtero bezala, aktore eta laguntzaile guztiak mahaiaren inguruan bilduko dira 2001eko balantzea egin eta hurrengo urteko istorioa pentsatzen hasteko.

→ Raket Goñi

## herri aldizkariak Edurne Elizondo

### Azkaine, Lapurdiko hirugarrena

**Ttipi-ttapa** aldizkarian, «1990. urteaz geroztik Sarako berriak biltzen dira **Ttipi-ttapan** eta 1998az geroztik, Senperekoak. Hemendik aitzin, hamabortzero Lapurdiko hirugarren herri batek ukanen du bere orrialdea eta Azkaineko berriak ere bilduko dira aldizkarian. Tokian tokiko berriak bildu eta galdegiten duten herritar guzieren banatzea da **Ttipi-ttapan**en xedea», aldizkariak maiatzeko lehen zenbakian biltzen duenez. Hortaz, azkaindar batzuek hala eskaturik, eta hiru gazteren sostenguari esker, aldizkaria Azkainen ere agertuko da.

Hasteko, eta erreportaia gisa, **Ttipi-ttapa**k Azkaineren historiaren nondik norakoak eta bertako elkarteak ezagutarazten ditu bi orrialdetan. Gainera, elkarrizketa ttikia egin diete aldizkarian Azkaineko berriak agertzea erdietsi duten Angela, Ihintza eta Eneko gazteei. Euren aburuz, Azkainen «jende aintzek euskaraz irakurtzea maite du, eta maite du ere herriko berrien ezagutzea. **Ttipi-ttapa** aldizkariari esker biak lotzen ahal dira». Gazteek diote Azkainen badirela kontatzeko kontuak: «Gure herria ez da bakarrik Donibane Lohizunen lan egiten duen jendearen pau-

salekua. Azkaine altxorrez betea da». Hala, estreinako kronikan **Ttipi-ttapa**koek kontatzen dute nola «arazo batzuen gaindi pasatzeko», besta taldea berriua izan den. Lehen erabakia, noski, Azkaingo bestak noiz izanen diren: «Gatazka bat bazen, maiz entzuna herriko ostatueta edo hauteskundeen kanpaina denboran: noiz egin behar dira bestak? Abuztuaren 15ean, Anderena Mari egunean, edo asteburu batean lan egiten dutenak etor daitezen? Erabaki bat hartu behar zen. 2001 urtean, Azkaineko bestak hasiko dira abuztuaren 15ean... eta bukatuko asteburuan!!».

# Letra zaharren garrantzia

Mintzoa argitaletxeak 'lingua navarrorum' esamoldea biltzen duen agiriaren 365 faksimilegin ditu

'Lingua navarrorum' esamoldea ez da erromatarrek errana, eta Antso VI. Jakitunak ere ez zuen bota. 1167ko agiri batean azalduen San Migel elizaren onurarako Arimeriako behitegia kudeatzeko egin zuten akordioa azaltzen baita. Berez, agiriak dakarren kontua ez da garrantzi handia baina 'lingua navarrorum' hori erabiltzeak egiten du dokumentua garrantzitsu. Hori dela eta, Mintzoa argitaletxeak agiriaren 365 kopia faksimilegin ditu.

**O**RTI LEHOARRIZ FACIET UT LINGUA NAVARRO- rum dicatur unamiacter et Aceari Umea faciet burucagu» (Ortiz Leyoarriz izan dadila, nafarren hizkuntzan esan ohi den unamiacter, eta Aznar Umea burucagu). Jose Moret eta Mariano Arigita historialari nafarrek dokumentu horren berri izan zuten, baina ez zioten batere garrantzi-rik eman Iruñeko gotzainaren eta Beila kontea- ren arteko akordioari. Jose Goñi Gaztanbidek, Iruñeko katedraleko egungo artxibozainak, 1965ean ikusi zuen estreinakoz dokumentua, baina orduan ere ez zion garrantzirik eman. 1997an *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona* izenburuko liburua argitaratu zuenean, aitzinsolasean dokumentuaren garrantziaz ohartarazi zuen, baita testua bera argitaratu ere.

**«Euskara, nafarren hizkuntza»**  
«Hau da pasarte bakarra non erraten baita euska- ra dela nafarren hizkuntza», erran du Goñik. «Eta dokumentu originala da, ez kopia bat». Dokumentu originala eta geroago egin zizkioten bi kopia- k Goñik ezin hobeki zaintzen duen artxiboan daude. Artxibozainarendako dokumentuaren garrantzia zientifikoa da batez ere. «Nik ez dut prentsa jarrai- tzen, baina uste dut azkenaldian asko idatzi izan dela nafarren hizkuntzaren inguruan», komentatu du. «Bixia da agiriari 'busto' hitzarekin gertatzen dena», adierazi du Goñik, balio zientifikoaren ha- rriari jarraiki.

«Nafar erromantzea da, baina deklinatzen du bigarren deklinabideko hitz latinoa ba- litz bezala ('dominus-i' bezala). Baina nominatibo- an 'busto' idatzen du, eta hori hirugarren deklina- bidekoa da ('sermo-oris'). Baina, 'bustus', latinez, erre da, kiskalia. Dokumentua idatzi zuena nor zen ez dakigu. Seguruenik euskalduna zen, eta gaztelania zein erromantzea ezagutzen zuen. Bai- na haren latina txarra zen».

Agiria idatzi zuenaren latina kaskarra izan zen, baina 1167an euskara 'lingua navarrorum' (nafarren hizkuntza) zela adierazteak berebiziko balio politikoa ematen dio egun. Akaso horrega- tik Iruñeko Mintzoa argitaletxeak dokumentuko 365 faksimile egin ditu. «Agiria historiaren aho- tsa da, eta euskaldunoei hemen gaudela erraten digu», adierazi du Mintzoa argitaletxeko buru Se- gundo Otatzuk. «Hizkuntza hagitz garrantzitsua da, hura gabe euskal nortasuna desagertuko li- tzatekeelako. Agiriak gogorarazten digu gure hiz- kuntza ez dela egun hitz egiten duguna, gure hiz- kuntza dela arbasoek hitz egiten zutena».

**Berrogeita hamar urtetik gora artxiboetan**

Jose Goñik, agiriaren garrantziaren aurkitzaile- ak, 87 urte ditu. 1944tik dago katedraleko artxi- bozain. «Lehenagotik ere hemen nengoen lane- an, aurreko artxibozainak, Nestor Zubeldiak, gil- tzak uzten zizkidalako», dio. Beti gustatu izan zaio dokumentuen artean gora eta behera ibil- tzea. Beti zerbait zehatzaren bila. Baina batzue- tan zerbaiten bila ibili eta beste zerbait aurkitzen du. «Katedraleko artxiboan euskararen gaineko beste dokumentu bat aurkitu nuen, 1376koa», erran du. «Bertan erraten da autoritate eklesiastikoak Getze-Ibargoitiko San Mi- guel eliza Leireko monasteriora lotzea onartzen duela, baldin eta 'parrokia zu- zenduko duena bertakoa eta euskal hitzuna bada'. Euskara aipatzen duen Iruñeko elizbarrutiko lehen dokumentu pastorala da».


Goñik dokumentuak kontsulta- tzeraz artxibora joaten direnei ha- rrera egiten die. 1500. urtea arteko dokumentu guzikiak katalogaturik ditu, eta urtero sortzen direnekin gauza bera egiten du: kataloga- tu, laburpentxoak egin, hiru ko- pia atera eta kronologikoki an- tolatu. Horretaz gain, makina bat liburu argitaratu du Goñik. «Iruñeko apezpikuen historiaren XI. li- burukia argitaratu dut azken, baina dokumenta- zio gehiena Vatikanoko artxibotik hartua da eta ez dut jarraitu artxiboa itxita dagoelako. Nahikoa egin dut. Atzetik datorrenak egin dezala».

**Faksimileen balioa**


Lan handia egin du Goñik bere bizitzan, baina lana besteek hartu dutena dela uste du. «1167ko agiria edizio faksimile- an aterateak ekartzen du lehen ez zuen dibulgazioa ematea», azaldu du Goñik. «Otatzurena lan handia da. Diru asko gastatu du honetan». Nabari da maita- sun handiz egin duela dena. Larrion eta Pimoulier argazkilariek egin zioten argazkia dokumentuari, eta kopia- k Graficas Lizarran egin zituzten. Makina bat proba egin eta arazo pila gainditu behar izan dute, baina atera dute azkenean. Antso Jakitunaren zigiluaren kopia duen aurkezpen eskutitzarekin batera, euskarri gisa, Nafarroako Diputazioak 1896an Gipuzkoakoari bidali zion esku- titz baten kopia ematen dute. Bertan, Nafarroako Diputazioak euskararen apologia harrigarri eta sutsua egiten du.

Xehetasun hauek guzkiek, noski, ba- dute preziorik. 'Lingua navarrorum 1167' dokumentuaren faksimile bakoitza 127.500 pezetan (5.100 liberatan) saltzen du Mintzoak. «Batzuk asalda- tzen dira faksimileak balio duen diru- tzarekin», dio Otatzuk. «Baina ez da es- kandaluzko prezioa kontuan izanez ge- ro ia mila urteko agiri honek erraten di- gula euskara dela gure hizkuntza».

Asier Azpilikueta



OSKAR MONTERO



OSKAR MONTERO

Jose Goñi Gaztanbide

Iruñeko katedraleko artxibozaina

«Nik ez dut prentsa jarraitzen, baina uste dut azkenaldian asko idatzi izan dela nafarren hizkuntzaren inguruan. Bada, 1167ko pasarte hau bakarra da eta bertan erraten da euskara dela nafarren hizkuntza. Eta dokumentu originala da, ez kopia bat»


## Mintzoaren faksimileak



SEGUNDO OTATZUK ETA BERE EMAZTEAK MINTZOA ARGITALETXEA SORTU ZUTEN Nafarroako kontu historikoak ikertu eta ezagutarazteko. Mintzoak, besteak beste, Nafarroako errege-erreginen gaineko eta Nafarroako konkistaren inguruko bildumak ditu, baita Iturralde Suit, Navarro Villoslada eta Campionen lanen bildumak ere. Dena dela, Otatzuk erran duenez, hemendik aurrera argitaletxeak, batez ere, faksimileak eta gauza arraroak landuko ditu. Faksimilea: izkribu edo marrazkien erreproduzio erabat zehatza, bereziki metodo fotografikoz egiten dena.

Duela zenbait urte, Otatzuk berak aurkituriko 1632ko Agramonten *Nafarroako Historia*-ren 200 erreproduzio atera zituzten faksimilean, altze larruan koadernaturik. Otatzuk dio bakan batzuk izan ezik ale gehienak salduak dituztela. «Interesa badago», erran du. Orain *lingua navarrorum* esamoldea biltzen duen 1167ko agiria erreproduzitu du Mintzoak, «%95eko zehaztasunarekin». Eta honen ondoren, Masparrauta nafararen 1492ko gazte atalak dituen gramatika gramatika atera nahi du Mintzoak, faksimilean hori ere. Mintzoaren produktuak [www.mintzoa.com](http://www.mintzoa.com) webgunean eskura daitezke.

## Segundo Otatzu EDITOREA



### «Nafarroan gauza anitz dago deskubritzeko eta jakiteko»

Miranda de Argan jaio zen Segundo Otatzu Jaurrieta, duela 57 urte. Euskara bere kabuz ikasi zuen, batez ere Ordizian eta Oñatin irakasle izan zenean, eta bere bi seme-alabak euskaldunak dira; «gatazka hori irabazia dut», dio. Serinte filmazio enpresako eta Mintzoa argitaletxeko buru da Otatzu, eta orduak ematen ditu liburu eta dokumentu zaharren bila.

■ Editorea zara, baina baita ikertzailea ere.

**Duela sei bat urte Agramonten Nafarroako Historia aurkitu zenuen.**

Liburutegietan ibiltzen naiz, liburu-ruen atzetik. Ikerkuntza asko interesatzen zait, eta horretan ematen dut denbora, baina ni ez naiz ikertzaile handia.

■ **Agramonten liburuaren kontura, NAFARKARIAK elkarrizketa egin zizun. Orduan Euskarazko lehen katiximaren atzetik zenbiltzan. Aurkitu duzu?**

Ez dut aurkitu. Gaztelako ia liburuak biltzen dituzten, baina ez dut aurkitu. Inork ez du aurkitu, asko baitaude horren atzetik.

■ **Nafarroako uren estatutuen bila ere bazenbiltzan.**

Horiek ez ditut eskuetan, baina badakit guti gorabehera non diren. Aldiz, gaztelaniazko lehen gramatika aurkitu nuen, Masparrauta izeneko nafar batek egin gaztelaniazko atalak

zituena gramatika aurkitu nuen, eta eskanerretik pasatzeko prest dago. Inkunabela da, 1492koa da, Nebrijaren garaikoa. Irakurri dut, eta Nebrija horik kopia zuela sumatzen da.

■ **Hori ere faksimilean aterako duzu?**

Bai, eta baditut beste bi gauza garrantzitsu ere, baina ez dut horien berri iragarri nahi. Euskal munduarendako oso garrantzitsuak izan direla uste dut. Izan ere, nik esperantza dut horietan aurkitzeko Donemiliaga aurretiko euskarazko hitzak. Euskal Herrian gauzak egin ziren, eta ez guti. Gurea kultura handia izan da, baina kaxoi batean sartu eta hor utzi zuten dena. Gainean oina paratu zuten, eta inguruan, ahaztearen alde zeuden zenbait pertsona. Beren hanka artetik sartzeari erdietsi eta zer edo zer aurkitu dugu. Ni ahal dudana guziaz ateratzen saiatuko naiz, hil arte. Eta aterako ditudan bi gauza horiek garrantzia izanen dute Euskal Herrian, penintsulan eta Europan.

■ **Kaxoi horretan ateratzeko gauza gehiago daude?**

Bai, barnean kontu asko dago, jendeak uste duena baino gehiago, baita Nafarroa ere. Kutxa gotorra da Nafarroa, eta ni irekitzen hasi naiz, besterik ez. Gauza anitz dago deskubritzeko eta jakiteko. Horren harira, adibidez, niri bitxia iruditzen zait nolako eztabaidak dauden Irungo eta Hondarribiko alardeen inguruan. Bada, Moretek lan bat idatzi zuen Hondarribiko setioaren inguruan, eta bertan erran zuen emakumezkoek praktikak jantzi, mosketeak hartu eta gizonezkoen gisara borrokatu zirela. Hauek jakin beharreko gauza garrantzitsuak dira, *lingua navarrorum* horren esanahia bezala.



# Abuztuan, Easo Ederrera

**Bi urtaro, udazkena eta autobusetakoa.** Gure aitak maiz errepikatzen du foru hiriburuan bi urtaro dauzkagula, udazkena eta Autobusetakoa. Ateraldiak euskaraz ez du zentzurik, badakit. Aitzitik, berak gaztelania batuan esaten du, eta Sanzen hizkuntzan esaldiak badu zentzurik, bai eta graziaz ere. Diglosia arazoak diglosia arazo, aitari ez zaio arrazoirik falta. Gozatu dugun negu epelaren ondotik, oso litekeena da uztailearen 15a arte 15 graduak gainditzerik ez izatea Foru Erkidegoaren nortasun bereziaren aurkakoa den izena duen aseguru-etxearen dorreko bonbillek (definizio erregionalista korapilatsua ulertu ez dutenentzat oharra: Vasco-Navarraren erloju-termometro erraldoiaz ari naiz).

Nolanahi ere, niretzako uda gero eta luzeagoa da. Igande goizean gure bi seme-alabak, bi patinete eta Action-Man-Urpekari bat Gazteluko plazara eraman nituen, paseoa. Haurrak ahal dudan guztietan eramaten ditut Iruñeko enparantza nagusira, haien burmuintxoetan haren oroitzapena iltzakerik eduki dezaten, alkatetzat dugun Action-Woman-Erregionalistak birrindu aurretik.

Plazarako bidean, Sarasate paseabidean, tonbola jada montatzen hasi dira, eta Nalia izozki dendak atea dagoeneko zabalik dituela ikusi nuen. Niretzat, uda da Naliako limoi-izotza —aranismo garbizalea dirudien arren, Bibliaren arabera, Elhuyarren arabera alegia, hala esaten zaio granizadoari— edaterik dudana bitartean. Urteko lehen limoi-izotz zoragarria zerbitzatu



Yolanda Barcina, Action-Woman-Erregionalista.

zidan neskatikoak esan zidanez, apirilean hasi ziren lanean eta urria arte ariko dira. Hartara, niretzako, aurtengo uda sei hilabetekoa izanen da.

## Udan, autobusez Donostiara.

Ez naiz udarekin bueltaka dabilen bakarra. Nire inguruan bada udarako txangoak antolatzen hasi denik. Nago Nafarroaren gertakari-bereizgarri —hecho diferencial euskaraz, Elhuyar dixit— nagusietako bat musean lau monarkarekin jokatzean datzala. Hala aritzen gara Monte Carlo tabernan, egunero, bazkaldoan.

Gerardo izaten ohi dut bikotekide testosterona elgarretaratzeotan. Maiz aurkari izaten dugun taxista batek —**Josetxo Azkonak**— Gerardo ikurri baina baskoagoa dela dio —harri-garria: Elhuyarren ez dut topatu guztiz esanguratsua den basko hitzaren



Action-Man-Urpekaria.

aztarnarik—. Horregatik ezustean harrapatu gintuen Gerardok azken partidari bota hordagoak: museko bikotekidea igandeko EAEko hauteskundeetako emaitzek **Jaime Mayor Oreja** lehendakari bilakatzeko irrikan dago.

Samueli —Monte Carloko zerbitzariari— hurrengoan Gerardoren gintonicari ginebra apokriko gutxiago botatzeko eskatu genion. Gerardok edabe garden garratzetik zurrupada luzea eztarriratu ondoren ekin zien azalpenei. Berak, kriptiko, «Irrikitan



Nalia izozki denda, Sarasate pasealekuan.

nago Donostiara joateko autobusak antolatzeke». Gu, adi eta ezer ulertzeke. Berak, piztu jakin-mina gozatuz, «Sandokanek ikastolei, euskaltegiei, egunkariei erasoko die, eta baskongadoek (sic) manifestaldiak antolatuko dituzte». Gu, ulertzen hasiak. Berak, bero, «Autobusak antolatuko ditugu, baskongadoengana joan eta 'aupa, eutsi' esateko, haiek guri maiz esan diguten bezala, harrotasun puntu batez». Gu, guztia ulertuta. Berak, azken kolpean gogor, «Oreja lehendakari, eta abuztuan txangoak Donostiara: Bulebarrean manifa eta Kontxan bainua».

Josetxo oker dabil: nire mus bikotekidea ez da ikurrina baino baskoagoa, baizik eta **Gaizka Aranguren** baino nafarragoa, sartzen bada —erdaradak gustuko dituen lagun batek esanen lukeen moduan—.



## panpilonia zirkus

# Hiru anaiak

Araba. Euskal Herriaren zazpigarren alaba. Baiona, berriz, Iruñearen anaia zaharrena. Bi ordu luze, eta berrehun kilometro inguru daude haien artean. Ez dute bat egiteko aukera handirik. Hala ere, 1960. urtetik senidetarik bizi dira. Garai gogorretan izenpetu zen adiskidetasun akordioa. Hitzarmena uztailearen 18an sinatu zen, noiz bestela?

Agintariekin, «bakea eta zoriona sendotuz, bi hirien arteko loraldi izpiritual eta materialaren alde» egiteko konpromisoa hartu zuten. Bakea. Zoriona. Izpiritua. Loreak eta hitz ederrak, besterik ez. Azken batean, gizarte, ekonomi, kultur eta kirol arloetan ez da garatu lankidetzat ituna. Harremanak, batez ere, etilikoak dira. Sanferminetan eta

Lapurdikoko hiriburuko bestetan. Eta kito.

Eta kito. Hirohito. Bat-batean, Japoniara egin dugu salto. Hogei urte dira Yamaguchiko hiriarekin senidetarik dagoela Iruñea. Bost mende bete dira, berriz, Nafarroako anaia nagusi San Frantzisko Xabierkoa han ibili zela, ebanjelioa besapean hartuta. Akordio sakon, zabal eta garrantzitsu honen emaitzak begi bistakoak dira: plaza bat eta parke bat.

Yamaguchin, Adiskidetasunaren plazan, erloju handi bat dago, eta orduak betetzen direnean «riau-riau» soina jotzen du eta, aldi berean, azpialdean entzierroaren irudi plastikoa erakusten du. Ordu oro, jaun-andreok. Arratsaldeko zazpiak dira.



Baiona, Yamaguchi eta Paderborn hiriekin senidetarik dago Iruñea.

Riau-riau. Ikaragarria. Erlojuaren truke, zuhaitzak ekarri dituzte Iruñera ekialdetik. Japoniako estiloari jarraiki sortu da Yamaguchiko parkea.

Azkenik, Iruñeko jaiotza-tasa behera badoa ere, hirugarren anaia sortu da. Bederatzi urte bete ditu Alemaniako Paderborn hiriarekin loturiko harreman ofizialak. Asko omen dira hara bizitzera joan diren nafarrak. Oraindik ez dugu batere eza gutzen. Bestalde, San Frantzisko Xabier-

Pello Argiñarena

koa gurtzen duteneko parroikia dago han. Hemen, berriz, hiri horretako adierazlerik ez dugu atzeman. Agian, litekeena da Landabengo Volkswagen lantegiko ingeniari edo teknikariren bat Paderbornen jaioa izana edo bertan senitarteko edo adiskideren bat izatea. Batek daki.

Hiru hiri hauekin adiskidetasun akordioen helburua da hiritarren arteko harremana bideratzea, ikasleak trukatzeko, kultur topaketak gauzatzea eta merkatuak sustatzea. Baina, batez ere, udal agintariekin batera eta bestera bidaiak, bisitaldiak eta bazkari ederrak egiteko aukera paregabea daukate. Hori bai, lankidetzat itunen aitzakian. Trukean, sanferminetan hiru anaiak bestetara gonbidatzen dituzte. Pañuelicoa lepoan jarri eta ondoren... riau-riau!

## Koldo Biñuales

IRUJO ETXEA ELKARTEKO IDAZKARIA

## «Euskaldun egiten gaituena berreskuratzea da gure xedea»

EZKILEN ITZALEAN, SANTIAGO enparantzako 2 zenbakian jaio zen Manuel Irujo Olo, 1891. urtean. Zendu zenean ere, 1981 ean, bertan ezarri zen hil kapera. Orain Irujo Etxea Elkarteak etxe horretan dauka bere egoitza, eta bertan solastatu gara bere kideetako batekin, Koldo Biñuales idazkariarekin.

### ■ Noiz eta nola sortu zen Irujo Etxea Elkarteak?

1998 urtean euskal kulturaren inguruan konpromisoa agertu genuen zenbait pertsona elkartu ginen. Gure hasierako asmoa Estellerriko bertze elkarte eta erakundeekin lan egitea zen. Aurreneko urte horretan, Mendabiako Euskal Astean parte hartu genuen, eta zenbait ikastolari diru laguntzak eman genizkien. Horrela hasi ginen.

### ■ Euskal kultura ardatz izanik, zehazki zeintzuk dira elkartearen helburuak?

Xedea da euskaldunon hizkuntza, kultura eta historia berreskuratzea eta zabaltzea da. Horretarako bi ardatz nagusi ditugu: batetik, guk geuk ekintzak antolatzea eta, bertetik, alor horretan lanean diharduten elkartei eta ekimenei laguntza ematea. Hasiera batean modu informal batean aritu ginen lanean, baina duela urte bat serioago hartu genuen gure eginkizuna, eta, sendotu ondoren, ekintza anitz antolatu ditugu. Egun elkarteak 52 kide ditu, Lizarra, Lodosa, Viana, Mendabia, Aiegi, Iruñea eta Iparraldekoak.

### ■ Elkartearen egoitza EAJk Lizarran duen egoitza bera da. Zer nolako harremana dago erakundearen eta alderdiaren artean?

Lehenik eta behin erran beharra dago Irujo Etxearen erronka kulturala dela, eta ez politikoa. Ildo metodologiko bat badago; baina elkarteak ez da alderdiarena; euskal kulturaren alde lan egin nahi duen guztientzat irekia dago. Ekarpinak egin nahi dituen orori ateak irekiko dizkiogu, ez du zergatik EAJko militantea izan, ezta gutxiago ere.

### ■ Zeintzuk dira elkarteak urtearen buruan antolatzen dituen ekitaldi nagusiak?

Urte honetan elkarteak eki-

Manuel Irujoren izena, ibilbidea eta pentsamendua berreskuratzeke xedearekin, 1998 urteko urrian Irujo Etxea Elkarteak sortu zen, Lizarran. Egun 52 kidek osatzen dute euskal kulturaren inguruan lan egiteko asmoarekin sorturiko elkarteak. Bilakaeraz eta jardueretaz mintzatu gara bere idazkariarekin.

● KRISTINA BERASAIN



soslaia

Koldo Biñuales 1951n jaio zen, Erronkarin. Filosofia eta Letrak ikasi zituen Deustuko Unibertsitatean, eta geroztik hezkuntzan aritu da buru-belarri. 1985etik 2000ra Lizarra ikastolako zuzendaria izan zen, eta egun DBHko irakaslea da. Euskal kulturaren hedapenean lanean diharduten zenbait elkartetako kide ere bada, Erronkariko Kebenko kultur taldeko kide, esaterako.

Manuel Irujo Olo 1891 urtean jaio zen, Lizarran. Bere ibilbidean zenbait ardura politiko izan zituen: Nafarroako diputatua izan zen, Justizia ministroa II. Errepublikaren garaian, eta Euskal Gobernuaren kontseilaria erbestean, Parisen. 1977 urtean Euskal Herrira itzuli zen, eta Nafarroako senatari eta parlamentari izan zen. 1981 urtean zendu zen, 90 urte zituela.

Irujok hauxe idatzi zuen, bertzeak bertze: «Ez zizparik eta ez kanoirik, ez lantzarik eta ez alabardarik, ez harririk eta ez lauxarik, ez kale borrokarik, ezta lepaxerloan danbadarik ezta bahiketarik. Bai, ordea, hitzaren indarra, egiaren uztarria, jakituriaren argia eta esku zabaltasunaren boterea. Bai bihozberaren distira eta maitasunaren berotasuna».

men berriak jarri ditu martxan. Aurrenekoa, azaroan egin zen hitzaldi sorta. Oso harrera ona izan zuen, eta urtez urte egiteko asmoa daukagu. Gure historia galdua berreskuratzea nahi dugu, eta horretarako ardatz tematikoa ezarri nahi izan dugu. Lehenengo hitzaldi sortak Nafarroaren konkista izan zuen ardatz, eta aditu ugari izan genituen gure artean. Datorren urtean, berriaz, Karlaldien inguruan sa-

kontzeko asmoa dugu. Halaber, eta hitzaldietan esandakoak jasotzearen, urtekari bat ere prestatzen ari gara. Ekainean karrikatuko dugu.

### ■ Don Manuel Irujo sariaren aurkezpena egin berri duzue. Nolatan ideia hau?

Urtero euskal kultura berreskuratzen lan egin duten pertsonen lana saritu nahi izan dugu sari honekin. Garrantzitsua iruditu zaigu isilean lan egiten du-

ten pertsona hauen zeregina goraiatzeko. Horregatik, gure elkarteak islatzen duen seiburuaren egurrezko tailua eta Manuel Irujoren irudia marraztua duen urrezko domina emanen diogu urteko sarituari.

### ■ Jose Maria Jimeno Jurio aukeratu duzue aurreneko saridun, ezta?

Bai, hala da. Gizon xumea da, sotila, hurbila; herritarren ondolan lan egin du beti, eta herria-

«Irujo Etxearen erronka kulturala da, ez politikoa. Elkarteak ez da EAJrena, guztiz zabala da, euskal kulturaren alde lan egin nahi duen guztientzat irekia. Ekarpinak egin nahi dituen orori ateak irekiko dizkiogu, ez du zergatik EAJko militantea izan, ezta gutxiago ere»

rentzat aritu da lanean. Bere ibilbidean euskal kulturaren gaian sakondu du, gure sustraian jatorrian miatuz eta gure historia helaraziz eta hedatuz. Gainera, Estellerrikoa dela erran daiteke, Artaxonan jaioa baita. Gizon egokia zen gure aurreneko saria eskaintzeko. Ekainaren 9an emanen diogu saria.

### ■ Manuel Irujoren izena duzue elkarteak eta sariak. Zer izan da gizon hori Euskal Herriaren historian?

Guretzat, Manuel Irujo eredu bat da, ez soilik bere ibilbide politikoa eragatik, bere izaeragatik baizik. Gizon adeitsua izan zen, bere herriarekin konprometitu, elkarrizketarako irekia eta entzuten zekiena. Manuel Irujo jaunak ez zion inoiz bere euskal izaerari uko egin.

### ■ Irujoren oihartzuna galdu egin dela uste duzue?

Ezbairik gabe, bere irudia ez da gaur egun behar bezala aintzat hartzen. Gure ustez, Irujok zuen gizatasunik ez dute Nafarroako egungo eragile politikoei, eta dohain horiek onartzea deserosoa izan daiteke. Agian horregatik ahantzi dute.

→ Kristina Berasain



## Nafar Kronika

Mikel Beramendi

### Fragaren lezioak

Nafarroaren eta Hegoaldeko bertze hiru lurraldeen arteko harreman guztiak hausteko prest daudenei, «bakean utz gaitzela» behin eta berriz errepikatu ohi dutenei, bat-batean bizkaitar, gipuzkoar eta arabarren etorkizuneko interesa piztu zaie. Orain artekoetan Gasteizko Legebiltzarrerako hauteskundeekiko interesa abertzaleen kontua zen. Aurtengoetan, aldiz, abertzaleak epelago sumatzen ditut bertzeak baino. Kezkagarria.

Gauza jakina da hauteskunde kanpainak ez duela balio teoriak dioenerako, baina gezurra da alferrikakoa denik. Galde diezaiotela, esate baterako, Mayor Orejari. Orain dela bi urte hasitako kanpainari esker, abertzale eta terrorista kontzeptu berdintsuak dira Espainian. Hain kanpaina luzean, ordea, dena ezin da ongi egin. Espainiako Teledibutazio erredaktorek eta CISeko teknikoek eginiko salaketak kaka-mokordoaren zati bat azalatu dute. Eta usaina ez da oso atsegina. Baina, lasai, gobernu hartuz gero, zikinkeria behar bezala ezkutatze teknika hobetuko dira.

Fragarena ere ez zen oso txukuna izan. Iru-di-aholkulariek badakite: Espainian hain irudi ona eta Euskal Herrian hain txarra duen donostiar-madrildarrarentzat gai batzuk ez aipatzea hobe. Horieta bat, jakina, euskara. Eta medikuak ere ados daude: adin batera heldutakoan ez da ona emozioztatzea eta, daki-zuenetz, lehengoan tipoa Zarautzen hunkitu egin zen biziki maite duen hizkuntzan hitz batzuk aditzean. Hori bertzerik ez genuen behar: Mayor Oreja eta Xalbador bat eginik. Herria da gorputza, hizkuntza bihotza.

Izan ere, hizkuntza eta sentimenduak elkarri lotuta daude gehienentzat, baina ez gure lehendakari argiarentzat. Fragak errana daki-gurea deus balio ez duen hizkuntza prehistorikoa dela. Amadeo Marco ere minduko zen hona etorritako kanpotar batek gure aurrean horrelakoa bota balu, baina ondoan zuena gure lehendakari txit argia zen. Portzierto: gurea prehistorikoa edo noizkoa den berdin zaigu euskaraz bizi nahi dugunoi, baina Jurramediko hilketak askoz hurbilagoak dira. 25 urte bertzerik ez. Hilketen arduradunak, euskara bezala, hura prehistorian utzi nahi du. Agian, bera ere prehistorian gelditu delako.

## gure aukerak

### MUSIKA

- **Zangoza:** Rock-pop lehiaketan, gaur, Mongrey taldeak Dos Caballos tabernan joko du, 23:00etan, eta Ambulance taldeak Diagonal tabernan, 00:00etan.
- **Burlata:** Dikers eta Pottor's taldeen kontzertua izanen da bihar, 22:30ean, Euskalherria peñan.
- **Berriozar:** Igandean, Danburia musika taldeak Pirinioetako herri musikaren soinuak eskainiko ditu, 19:00etan, Mendialdea ikastetxean.

### BERTSOLARIK

- **Makea:** Bihar, 15:00etan, Amets Arzallus, Mizel Mateo, Patxi Iriart eta Gillen Hiribarren bertsolarien saioa izanen da Etxetto etxean.
- **Urruña:** Igandean, 13:30etik aurrera, bertso bazkaria egingen dute ikastolan, Amets Arzallus eta Sustrai Kolinarekin.

### TXOTXONGILOAK

- **Barañain:** Igandean, Hankagorri taldearen Petrikiloak, 12:00etan eta 19:00etan, Udaletxe plazan. Astelehenean, Behibi's taldearen Zuk zeuk, 19:00etan, udaletxe aretoan. Asteartean, Pantha Rei taldearen Beltzitina, 19:00etan, udaletxe aretoan.

### PILAZOAK

- **Bera:** Takolo, Pirritx eta Porrotxek Parrandan haurrentzako ikuskizuna eskainiko dute igandean, 17:00etan, kultur etxean.
- **Mutiloagoiti:** Aranguren ibarreko kultur egitarauaren arabera, Takolo, Pirritx eta Porrotx pilazoak Eguzki plazan izanen dira asteazkenean, 17:30ean.

### HITZALDIK

- **Iruña:** Akaitze Kamairuagak eta Nerea Arregik, Labayru Ikaste-

giko teknikariak, Ahozko literatura urte-sasoien inguruan izenburuko hitzaldia emanen dute gaur, 12:00etan, Nafarroako Unibertsitateko Eraikin Zentraleko 12. gelan.

► **Iruña:** Patrimonio, ¿un concepto en crisis? izenburuko hitzaldia eskainiko du gaur Koldo Martinez Garate ingeniariak, 19:30ean, Nabarrera kultur zentroan.

► **Iruña:** Fernando Mendiola Historia irakasleak Jenero eta lan merkatua industrializazioaren hasieran. Nafarroa eta Bizkaiko kasuak izenburuko hitzaldia emanen du heldu den aste-

azkenean, 12:00etan, NUPeko Historia eta Geografia gelan.

### ERAKUSKETAK

- **Bera:** Hilaren 20a arte, Kurdistango argazkien erakusketa kultur etxean, astelehenetik larunbatera, arratsaldetan.
- **Iruña:** Pablo Cornejoren margolanak Pintzel galerian, 26a arte, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

### JAIALDIK

- **Mutiloa:** Bihar, egun osoko jaialdia egonen da Gazte Elkar-

teen Astearen karietara: irekitzea (10:30); txistor jatea, taile-rrak, ipuin kontalariak, ginkana (11:30); Afrikako dantzak, graffitiak (12:00); murala (12:30); herri kirolak (13:00); herri bazkaria (14:30); dantzaldia (16:30); Hechos contra el Decoro taldearen kontzertua (21:30).

► **Iruñean:** Igandean, 19:00etatik aurrera, El Salvadorko kalte-tuen aldeko jaialdia egingen dute kiroldegian. Jaialdian dantzariak, Malabares taldea, erraldoiak, gaiteroak eta musika eskolakoak izanen dira jaialdia girotzeko.

• JOXE LACALLE



### 'No comment'

Euskara garai modernoetara moldatu ez den historiaurreko hizkuntza dela erratera etorri zaigu Manuel Fraga Iribarne. Behin bota eta iragan asteartean berriz erran zuen, Iruñean bertan. Sanchez Albornoz eta Unamuno aipatu zituen bere iritzia euskarri gisa. Euskara "ederra" dela uste du Fragak, "ederra eta historiaurrekoa". Hots, museoan sartu eta ez ateratzeko modukoa (hori erraten ez zuen deus ere erran. Akaso ez zuen Fragaren hizkera ulertuko; gaztelania, galiziera eta euzkari barneko hotsen nahasketa ez baita ulertzen erraza. Batzuetan, politikoei hobe lukete "no comment" erratea eta euren energia zeregin produktiboagoetara bideratzea.